

Gipuzkoa Solidarioa 2012

SOS Arrazakeriak antolaturik, hirugarren urtez egingo **da Donostiako Kursaalean datorren azaroaren 25ean, arratsaldeko 17etan**. Aurreten tokia eta formatoa aldatuko dugu. Mila pertsonatik gora biltzea espero dugu auditorio nagusian eta antzerkia, elkarrizketak, musika eta bideoak izango ditugu. Bertan izango dira joan den igandean *BIZILAGUNAK-Aldameneko familian* parte hartu duten 500 'bizilagunak' ere, eurak izango baitira aurtengo protagonistak.

Joan den igandean, azaroak 18, 500 pertsonak hartu zuten parte Aldameneko familia egitasmoaren baitako otorduetan. 60 familiek egin zieten harrera beren etxeetan beste hainbeste sendiei. Hemen jaiok ziren batzuk eta beste herrialde batzuetatik etorriak besteak. Igande batean, mahai inguruan eserita, beren bizipenak, nahiak eta kezak, ametsak eta egitasmoak elkartrukatzeko gogoz elkartuak guztiak. Horixe zen helburua, hain zuzen, elkar ezagutu eta partekatzea. SOS Arrazakeriarentzat, geure gizartearen barneko loturak sendotzeko eta aurreiritziak, ez ezagutzetik eta ez jakitetik jaiotzen diren horietakoak, suntsitzeko era bat da.

Datorren igandean, azaroak 25, Donostiako Kursaalean argitaratuko dugu esperientzia eder hau. Gipuzkoa Solidarioaren hirugarren edizioa ospatuko dugu. Urtetik urtera gehiago gara herri honetan bizi eta lan egiten dugun pertsona guztiak hartuko dituen gizartea eraikitzeke erabakitasuna adierazi nahi dugunak. Horrexegatik, aurtengo ekitaldia Kursaaleko Auditoriumean egingo dugu. Datorren igandean, azaroak 25, arratsaldeko 17etan, Donostiako Kursaalera etor zaitezten gonbitea helarazten dizugu, eta zeure lagunak ere gonbida ditzazun eskatzen dizugu.